

# EUSKOTRENEK ZERBITZUA ALDATUKO DU BILBOKO ETA GASTEIZKO TRANBIETAN, ERREGE KABALGATA DELA ETA

Datorren larunbatean urtarrilaren 5ean, Euskotrenek zirkulazioa moztuko du Bilboko eta Gasteizko tranbietan, Errege Kabalgata dela eta.

Zehatzago esanez, honako aldaketa hauek gertatuko dira tranbia zerbitzuan :

## BILBOKO TRANBIA

Arriaga-Pio Baroja geralekuen artean 17:30ak eta 20:30ak bitartean, gutxi gorabehera, zirkulazioa moztu egingo da. Mozketan zehar La Casilla-Pio Baroja tartean tranbia normaltasunez ibiliko da eta zirkulazioak 10 minutuz behin izango dira. Atxuri-Arriaga tartean, aldiz, tranbiak 15 minutuz behin ibiliko dira. Zerbitzuaren gainerako eguna ohikoa izango da.

- Azken irteera Atxuritik . . . . . 17:28
- Azken irteera La Casillatik . . . . . 17:11
- Lehen irteera Atxuritik . . . . . 20:28
- Lehen irteera La Casillatik. . . . . 20:11

## GASTEIZKO TRANBIA

Zirkulazioa moztuko da Angulema-Legebiltzarra artean, arratsaldeko 18:30etatik 21:30etara, gainerako zerbitzua ohi bezala ibiliko da:

- Azken irteera Ibaiondotik . . . . . 17:45
- Azken irteera Abetxukotik . . . . . 17:52
- Azken irteera Angulema-Abetxuko . . . . . 18:08
- Azken irteera Angulema-Ibaiondo . . . . . 18.16
- Lehen irteera Angulema-Abetxuko . . . . . 21:38
- Lehen irteera Angulema- Ibaiondo . . . . . 21.45
- Lehen irteera Legebiltzarra-Angulema . . . . . 21:30

Beste aldetik, Euskotrenek jakinarazten du urtarrilaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan, tren berezi bat helduko dela Gernikako geltokira. Bertan Errege Magoak etorriko dira, hasiera emateko Gernikan ospatuko den Kabalgatari.

Informazio gehiago lortzeko asmoz, erabiltzaileek 944 333 333 telefono zenbakira dei dezakete, tranbiaren [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) web gunea kontsulta dezakete, edota twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean eta Euskotrenen APP ofizialean

Igorpen data: 2019ko urtarrilaren 3an

*Euskadi, auzolana, bien común*

